

{ gertuko
planak }



Bizkaia / Bermeo

Arrantzaleen
Museoa:
Bermeo
ezagutzeko
ezinbestekoa

Nerea LAUZIRIKA



Sartu gabe ere, ikusgarria da Bermeoko Arrantzaleen Museoak eskaintzen duena. Portutik metro gutxira dago, aldapatxo bat igota, eta al-tueratik Kantauri itsasoari erreparatzeko para-da ematen du, ikuspegi paregabeaz gozatze-koa, alegia.

«Toki hau beti izan da biltegi moduko bat, arrantza munduarekin zer ikusia zuten hainbat gauza hona ekar-tzen zituzten eta museo bezala 1948tik funtzionatzen du, baina batez ere, biltegi moduan», azaldu du Aixa Gaztelu museoko zuzendariak. Bi urte dira dagoeneko zeregin ho-rretan dabilenetik, Aingeru Astuiri lekukoa hartu zione-tik. Umiltasunez mintzo da eta hasiberritzat jotzen du be-re burua, baina nabari da bi urteok aski izan dituela museoa esku ahurra bezala ezagutzeko. Gorka Abad mu-seoko gidariarekin batera eman dio GAUR8ri Arrantza-leen Museoaren eskaintzaren berri.

Gazteluk azaldu du 1948tik arrantzari lotutako materia-lak batu izan dituen erakundea bada ere, 80ko hamarka-dan hasi zela bene-benetan museo bezala funtzionatzen, «museografia lantzen eta helburu batzuk ezarrita». Egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko museoa da eta ikus-gai dauden elementu ia guztiak norbanakoek egindako dohaintzak dira.

2014an egin zioten azken berrikuntza museoaren egoitza den Ertzilla Dorreari. «Goitik behera berritzut zen eta horixe da gaur egun daukagun erakusketa», azaldu du Gazteluk. 1944an “monumentu nazional” izendatu zuten jatorriz Er-tzilla familiak bizileku izan zuen eraikin historikoa eta or-duz geroztik museo gisa funtzionatzen du.

Solairuka antolatuta dago museoa: bakoitzean gai jakin batzuk landu eta haiei lotutako objektuak erakusten dituz-te. Baina ez da elementu materialen bilduma hutsa, ondare immateriala gorde eta zabaltzea baita museoaren lehenta-sun eta helburu nagusia.

«Beheko solairuak, lehenak eta bigarrenak behin betiko erakusketa hartzen dute, eta ganbaran aldi baterako erakus-ketak egiten ditugu», dio museoko zuzendariak. Urtean aldi baterako bi erakusketa egiten dituzte, gutxienez, bermeota-rrren zein bermeotarrak ez direnen jakin-mina pizten dute-nak, bisitari kopuruari erreparatuta: «Badago jendea aldi baterako erakusketak ikustera bakarrik datorrena».



Une honetan “Bermeo Portu Zaharra 1877-2024” erakus-keta dago ikusgai, datorren urteko urtarrilaren 12ra arte. Beraz, badago denbora bisitatzeko. Iñaki Marcaidak 1965etik hona egindako lanaren emaitza da. Marcaidak portuaren aldaketak eta jarduerak argazkietan jaso ditu, bilduma partikularretatik, artxiboetatik eta beste iturri batzue-tatik lortutako irudiak bilatu eta zaharberritu ditu teknika digitalen bidez, jatorrizko distira itzultzeko. Kronologikoki antolatuta, irudi horiek portuaren garapen fisikoa doku-mentatzeaz gain, bere komunitatearen esentzia eta bizitza ere jasotzen dituzte, gai horiek gogoan dituztenen zein inoiz ezagutu ez dituztenen gozamenerako.

BERMEOREN ETA BERMEOTARREN PARTE

«Bermeoko jendearentzat museoa haien parte da», azaldu du Gazteluk. Izan ere, «haien gauzeekin eginda dago», Aba-den hitzetan. Ondare immateriala lantzen dute gehienbat, hots, euskal arrantzaleei buruzkoa, zuzendariak azpimarra-tu duenez: «Ez bakarrik itsasoan gertatzen dena, baita por-tuan eta lehorrean gertatzen diren gauzak ere: neskatilak, saregileak, hainbat ogibide, ontziolak...».

Arestian aipatu bezala, solairuka banatuta dago erakus-keta iraunkorra. Beheko solairuan Arrantzaleen Museolari buruzko informazio baliagarriaz gain, eraikinari buruzko historia ere aurkitu dezake bisitariak. Horrez gain, Ber-meoko hiribilduaren historia, etnografia, arrantzaleen bi-zitza, lanbide osagarriak eta arrantzaren komertzializazioa ezagutu daitezke.

Lehen solairua erriberako arotzeria, balearen ehiza eta arrantza teknikak garatzen dituen solairu irekia da. Haren altuerarengatik Bermeoko erraldoien etxea izateko toki ezin aproposagoa da eta horregatik, ikusgai egoten dira bertan Anton, Josefin, Lorentzo eta Mari erraldoiak, parran-dan ez dabiltzanean. Bereziki maitatua da Anton, hezur ha-ragizko bermeotar batengan oinarrituta dagoelako, eta be-netakoaren senideen bisita izaten du askotan erraldoi formako erreplikak. Gainera, herriko umeek txupetea bera-ri ematen diote gehiago erabili behar ez dutenean, eta bete-beteta dauka otzara.

Bermeotarrak sarri ibiltzen dira museoan, beraz, baina ez haiek bakarrik. Izan ere, haiek ezin hobeto ezagutzen dute Ertzilla Dorrean azaltzen dutena eta, hortaz, kanpoko bisita

Ezkerreko irudian,
Gorka Abad eta Aixa
Gaztelu, museoaren
atarian. Goiko
argazkietan, museoko
erakusketa.
Gorka RUBIO | FOKU

i jakin beharrekoak

Irailan udako ordutegia daukate oraindik; beraz, asteartetik larunbatera 10.00etatik 19.00etara dago zabalik, eta igande eta jaiegunetan, 10.30etik 14.30era.

Azarotik aurrera antzekoa da ordutegia, baina asteartetik larunbatera 16.00etan ixten dute.

Sarrerak 3,50 euro balio ditu, baina, 2 euro baino ez 26 urtera artekoentzat, 60 urtetik gorakoentzat, desgaitasunen bat dutenentzat, langabetuentzat, erretiratuentzat, familia ugarientzat eta hamar pertsonatik gorako taldeentzat. 12 urtera arteko umeak doan sar daitezke.

asko ere badira. Gazteluk azaldu du gehienbat espainiar Es-tatuko bisitariak izaten direla, batez ere erretiratuak. As-tean zehar ikastetxe askoren bisita ere izaten dute.

Izan ere, Bermeoko Arrantzaleen Museoa denentzako tokia daukate, haur zein heldu, aditu zein ezjakin. «Gure helburua da arrantzari buruz ezer ere ez dakien norbait ho-na sartzen bada, zerbait ikasi edo nozio batzuk jasotzea», azaldu du zuzendariak.

BISITARIAREN NEURRIRA

Hainbat bisita mota eskaintzen dituzte bisitariaren arabera. «Umeei edo ikastetxeei zuzendutako bat daukagu, haien denboraren edo landu nahi dutenaren arabera haiekin adosten duguna», adierazi du Gazteluk. Horrez gain, badi-tuzte bisita gidatuak helduentzat eta bisita librea egiteko aukera ere badago.

«Gidoiak bizirik daude; bizilagunek kontatzen dizutena-rekin, ikertzen duzunarekin... osatzen zoaz», dio Abadek. Ja-torritzkoak, ordea, Aingeru Astui aurreko zuzendariak egin zituen langileekin batera. Gazteluren arabera, «aditua» bai-tzen gaian, bermeotarra izaki.

Edukia denentzat da antzekoa, baina adin tartearen ara bera egokitzen dute, Abadek azaldu duenez: «Umeei hitz egiten dugu Bermeoko gizarteaz, portuaz, genero rolez, arrantza motez... XVI. mendeko balearen ehizaz ere hitz egi-ten dugu, oso garrantzitsua baita». Erretiroa hartuta dute-nekin ere aritzen dira balearen ehizaz, baita antxoaz eta atunontziez ere.

Bisitez gain, umeentzako tailerrak antolatzen dituzte, gaztetxoenei arrantza mundua erakusteko. Besteak beste, arrantzaren egutegia lantzen dute, arrain bakoitza noiz arrantzatzen den jakiteko; murtzilen koadroa egiten dute, korapilo desberdinak ezagutzeko, eta banderak ere lantzen dituzte. Eskoletatik egiten dituzten txangoetan hurbiltzen dira haurrak gehienbat, baina asteburuetan gurasoe-kin joateko aukera ere badute, «famiariartean zerbait egiteko», Abaden hitzetan.

Izan ere, egun osoko plana egiteko aitzakia paregabea da Arrantzaleen Museora txangoa egitea. Portu zaharraren gainean dago eta, bertatik abiatuta, Bermeo ezagutzeko aprobetxatu daiteke, Lameran dagoen turismo bulegoan herriaren eskaintza ezagutu ostean.